

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/25/EE ZUZENTARAU, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko apirilaren 5koa, agente fisikoetatik (erradiazio optiko artifizialeetatik) eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileak babesteko onartu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa (89/391/EEE Zuzentarauko 16. artikuluko 1. paragrafoaren araberrako berarriazko hemeretzigarren zuzentarau).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :
« Directiva 2006/25/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de abril de 2006, sobre las disposiciones mínimas de seguridad y de salud relativas a la exposición de los trabajadores a riesgos derivados de los agentes físicos (radiaciones ópticas artificiales) (decimonovena Directiva específica con arreglo al artículo 16, apartado 1, de la Directiva 89/391/CEE)

2006/25/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko apirilaren 5koa,

agente fisikoetatik (erradiazio optiko artifizialeetatik) eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileak babesteko onartu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa (89/391/EEE Zuzentarauko 16. artikuluko 1. paragrafoaren arabera berariazko hemeretzigarren zuzentaraua).

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Ikusi dute Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak, eta, batez ere, 137. artikuluko 2. paragrafoa.

Ikusi dute Batzordearen proposamena¹, laneko Segurtasun eta Osasunerako Aholku Komitearekin kontsultatu ondoren aurkeztutakoa.

Ikusi dute Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena².

Eskualdeetako Komitearekin kontsultatu dute lehenik.

Tratatuko 251. artikuluan³ xedatutako prozeduraren arabera jokatu dute eta aintzat hartu dute Adiskidetzeko Komiteak 2006ko urtarrilaren 31n onartutako testu bateratua.

Eta kontuan hartu dute hau guztia:

- 1) Tratatuaren arabera, Kontseiluak hobekuntza sustatzeko gutxieneko xedapenak har ditzake zuzentzarauen bidez; batik bat, lan-arloa hobetzeko izango dira, langileen osasun eta segurtasunari babes-maila handiagoa ematen zaiela bermatzeko. Zuzentzari horiek saihestu egin behar dituzte administrazio-, finantza- eta justizia-aldetik enpresa txiki eta ertainak (ETE) sortu eta garatzeko jartzen diren oztupoak.
- 2) Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialen Erkidegoaren Gutuna aplikatzeko ekintza-programa dela-eta, Batzordeak jakinarazpen bat egin zuen, eta han aurreikusi zen osasun eta segurtasunerako gutxieneko xedapenak ezartzea agente fisikoetatik eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileak babesteko. 1990eko irailean, Europako Parlamentuak

ebazpen bat egin zuen ekintza-programa hori⁴ dela-eta: besteak beste, zaratarekin eta bibrazioekin eta lantokiko beste edozein agente fisikorekin lotutako arriskuen arloan berariazko zuzentzari bat lantzeko eskatu zion Batzordeari.

- 3) Lehenengo fasean, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko ekainaren 25eko 2002/44/EE Zuzentzari onartu zuten, agente fisikoetatik (bibrazioetatik) eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileak babesteko segurtasun- eta osasun- arloan onartu beharreko gutxieneko xedapenei buruzkoa (89/391/EEE Zuzentzari 16. artikuluko 1. paragrafoaren arabera berariazko hamaseigarren zuzentzari)⁵. Aurrerago, 2003ko otsailaren 6an, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003/10/EE Zuzentzari onartu zuten, agente fisikoetatik (zaratatik) eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileak babesteko segurtasun- eta osasun- arloan onartu beharreko gutxieneko xedapenei buruzkoa (89/391/EEE Zuzentzari 16. artikuluko 1. paragrafoaren arabera berariazko hamazazpigarren zuzentzari)⁶. Geroago, 2004ko apirilaren 29an, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004/40/EE Zuzentzari onartu zuten, agente fisikoetatik (eremu elektromagnetikoetatik) eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileak babesteko segurtasun- eta osasun- arloan onartu beharreko gutxieneko xedapenei buruzkoa (89/391/EEE Zuzentzari 16. artikuluko 1. paragrafoaren arabera berariazko hamazortzigarren zuzentzari)⁷.

- 4) Gaur egun, beharrezkotzat jotzen da langileak erradiazio optikoekin lotutako arriskuetatik babesteko neurriak finkatzea, langileen osasun eta segurtasunean izan ditzaketan efektuak direla bide (begietako eta azaleko lesioak, batez ere). Neurri horien helburua langile bakoitzaren osasuna eta segurtasuna bermatzea gain, Erkidegoko langileriarentzat gutxieneko babes-oinarri bat sortzea da, lehiakortasunak eragin ditzakeen distortsioak saihesteko.

¹ 1993-03-18ko C 77 EO, 12. or. eta 1994-08-19ko C 230 EO, 3. or.

² 1993-09-13ko C 249 EO, 28. or.

³ Europako Parlamentuaren 1994ko apirilaren 20ko irizpena (1994-05-09ko C 128 EO, 146. or.), 1999ko irailaren 16an berretsia (2000-02-25eko C 54 EO), 2005eko apirilaren 18ko Kontseiluaren Jarrera Bateratua (2005-07-12ko C 172 E EO, 26. or.) eta 2005eko azaroaren 16ko Europako Parlamentuaren Jarrera (ez da argitaratu oraindik Aldizkari Ofizialean). Europako Parlamentuaren 2006ko otsailaren 14ko lege-ebazpena (oraindik ez da argitaratu Aldizkari Ofizialean) eta Kontseiluaren 2006ko otsailaren 23ko erabakia.

⁴ 1990-10-15eko C 260 EO, 167. or.

⁵ 2002-07-06ko L 177 EO, 13. or.

⁶ 2003-02-15eko L 42 EO, 38. or.

⁷ 2004-04-30eko L 159 EO, 1. or. Bertsio zuzendua: 2004-05-24ko L 184 EO, 1. or.

- 5) Zuzentarau honen helburuetako bat zera da, erradiazio optikoen esposizioak osasunean eragindako efektu kaltegarriak goiz detektatzea.
- 6) Zuzentarau honek gutxieneko xedapenak ezartzen ditu, eta beraz, estatu kideek horiek bete edo zorrotzagoak har ditzakete langileak babesteko (batez ere, esposizio-balio txikiagoak finkatuz). Zuzentarau hau betetzeak ez du justifikatzen estatu kide bakoitzean dagoen egoera okertzea.
- 7) Erradiazio optikotik eratorritako arriskuen kontrako babes-sistemak puntu hauek besterik ez ditu finkatu behar, alferrikako xehetasunik gabe: lortu beharreko helburuak, errespetatu beharreko printzipioak eta Estatu kideek gutxieneko xedapenak modu baliokidean ezartzeko aplikatu beharreko oinarriko magnitudeak.
- 8) Erradiazio optikoarekiko esposizio-maila murrizteko modurik eraginkorrena lanpostuak sortzerakoan prebentziozko neurriak hartzea da, eta, halaber, arriskuak jatorrian murrizteari lehentasuna ematea, lanerako ekipamenduak, prozedurak eta metodoak hautatzerakoan. Beraz, lan-ekipamenduei eta -metodoei buruzko xedapenak lagundu egiten dute horiek darabiltzaten langileak babesten. 1989ko ekainaren 12ko Kontseiluaren 89/391/EEE Zuzentarauan, langileen laneko segurtasun eta osasuna hobetzera bultzatzeko neurriak aplikatzeari buruzkoan¹, 6. artikuluko 2. paragrafoan, prebentziorako printzipio orokorrak xedatu ziren, eta horiei jarraiki, babes-neurri kolektiboek lehentasun handiagoa dute bakarkako babes-neurriek baino.
- 9) Enpresaburuek egokitu egin behar dute erradiazio optikoarekiko esposizioak dakartzan arriskuen arloan eginiko aurrerakuntza teknikoetara eta ezagutza zientifikoetara, langileen osasuna hobeto babestu eta segurtasuna handitze aldera.
- 10) Zuzentarau hau 89/391/EEE Zuzentarauko 16. artikuluko 1. paragrafoaren araberrako berariazko zuzentarauek denez, 89/391/EEE Zuzentarauek aplikatuko zaio erradiazio optikoarekiko esposizioan dauden langileen gaiari, zuzentarau honetako xedapen zorrotzagoak eta zehatzagoak betetzeari utzi gabe.
- 11) Zuzentarau hau elementu zehatza da barne-merkatuaren dimentsio soziala eratzearen esparruan.
- 12) Araugintza-jarduera hobetzeko printzipioak sustatzeko eta babes-maila handia ziurtatzeko,

¹ 1989-6-29ko L 183 EO, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamenduaren bitartez aldatutako zuzentarauek (2003-10-31ko L 284 EO, 1. or.)

beste gauza bat ere zaindu behar da: erradiazio optikoaren iturrien eta horiei lotutako ekipamenduen fabrikatzaileek eginiko produktuek bat etorri behar dute erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna babesteko eginiko arau bateratuekin, produktu horiei atxikitako arriskuetatik babesteko eginikoekin, hain zuzen. Hortaz, enpresaburuek ez dute fabrikatzaileak lehendik eginiko neurketak eta kalkuluak errepikatu beharrik ekipamendu horietarako funtsezko segurtasun-xedapenekin bat datozen erabakitzeko (Erkidegoaren zuzentarau aplikagarrietan daude zehaztuta), betiere ekipamendu horiei mantentze-lanak ondo eta aldizka egin bazaizkie.

- 13) Zuzentarau hau betetzeko premiazko neurriak erabaki honi jarraiki onartu behar dira: Kontseiluaren 1999/468/EE erabakia, 1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari esleitutako betearazteko eskumenak erabiltzeko prozedurak finkatzen dituen².
- 14) Esposizio muga-balioek babes-maila handia eman behar dute erradiazio optikoarekiko esposizioak osasunean izan ditzakeen efektuen kontra.
- 15) Batzordeak gida praktikoa egin behar du, enpresaburuek, eta batez ere, ETEetako zuzendariak hobeto uler ditzaten zuzentarau honetako xedapen teknikoak. Gida hori lehenbailehen burutzen saiatuko da Batzordea, Estatu kideek errazago onar ditzaten zuzentarau hau aplikatzeko premiazko neurriak.
- 16) «Legeak hobeto egin»³ erakunde arteko hitzarmeneko 34. puntuari jarraiki, estatu kideak beren koadroak finkatzera eta jendaurrean jartzera animatu nahi dira, beren nahiz Erkidegoaren onurarako; koadro horiek zuzentarau hau eta estatuko zuzenbidean sartzeko neurriak bat datozela erakutsi behar dute, ahal den neurrian.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Helburua eta aplikazio-esparrua

1. Zuzentarau hau 89/391/EEE Zuzentarauko 16. artikuluko 1. paragrafoaren araberrako hemeretzigarren berariazko zuzentarauek da, eta gutxieneko xedapenak finkatzen ditu gai honen gainean: langileek izan beharreko babesa

² 1999-07-17ko L 184 EO, 23. or.

³ 2003-12-31ko C 321 EO, 1. or.

erradiazio optiko artifizialekiko esposizioan lan egiteak sortutako edo sor ditzakeen osasun- eta segurtasun-arriskuen aurrean.

2. Zuzentarau honek langileen osasunerako eta segurtasunerako arriskuaz hitz egiten du, erradiazio optiko artifizialekiko esposizioak azalean eta begietan efektu kaltegarriak eragin ditzakeela kontuan hartuta.
3. 89/391/EEE Zuzentaraia osorik aplikatuko da 1. paragrafoan aipatutako arlo guztian, zuzentarau honetako xedapen zorrotzagoak edo zehatzagoak betetzeari utzi gabe.

2. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honetan, honela ulertuko dira termino hauek:

- a) «Erradiazio optikoa»: 100 nm eta 1 mm bitarteko uhin-luzera duten erradiazio elektromagnetiko guztiak. Erradiazio optikoaren espektroan erradiazio ultramorea, erradiazio ikusgaia eta erradiazio infragorria daude.
 - i) «Erradiazio ultramorea»: 100 eta 400 nm bitarteko uhin-luzera duen erradiazio optikoa. Tarte ultramorea UVA (315-400 nm), UVB (280-315 nm) eta UVC (100-280 nm) izan daiteke.
 - ii) «Erradiazio ikusgaia»: 380 eta 780 nm bitarteko uhin-luzera duen erradiazio optikoa.
 - iii) «erradiazio infragorria»: 780 nm eta 1 mm bitarteko uhin-luzera duen erradiazio optikoa. Tarte infragorria IRA (780-1400 nm), IRB (1400-3 000 nm) eta IRC (3000 nm-1 mm) daude.
- b) «Laserra» (light amplification by stimulated emission of radiation; erradiazioaren igorpen estimulatua bidezko argi-anplifikazioa): erradiazio optikoaren uhin-luzeraren tartean erradiazio elektromagnetikoa sortu edo amplifikatu dezakeen edozein tresna, batez ere, kontrolatutako igorpen estimulatua bidez egiten dutenak;
- c) «Laser-erradiazioa»: laserretik datorren erradiazio optikoa.
- d) «Erradiazio ez-koherentea»: laser erradiazioa ez den erradiazio optiko oro.
- e) «Esposizio muga-balioak»: erradiazio optikoarekiko esposizioaren mugak, zuzenean egiaztatutako osasun-efektuetan eta irizpide biologikoetan oinarritutakoak. Muga horiek errespetatu gero, bermatu egingo da erradiazio optikoko iturri artifizialekiko esposizioan

dauden langileak ezagutzen diren osasunerako efektu kaltegarrietatik babestuta daudela.

- f) «Irradiantzia (E) edo potentzia-dentsitatea»: gainazal bati (azalera-unitateko) eraso egiten dion potentzia erradiatzailea, metro koadroko wattetan ($W m^{-2}$) adierazita.
- g) «Esposizio erradiatzailea (H)»: denborarekiko irradiantzia integratua, metro koadroko jouletan adierazita ($J m^{-2}$).
- h) «Erradiantzia (L)»: angelu solidoko unitateko eta azalera-unitateko igortzen den erradiazio-fluxua edo potentzia, estereorradianeko metro koadroko wattetan adierazita ($W m^{-2} sr^{-1}$).
- i) «Maila»: langile batek jasaten duen irradiantziaren, erradiazio-esposizioaren eta erradiantziaren esposizioa.

3. artikulua

Esposizio muga-balioak

1. Lehenengo eranskinean, esposizio muga-balioak daude finkatuta erradiazio optikoko iturri naturalek igorritakoak bestelako erradiazio ez-koherenterako.
2. Bigarren eranskinean, laser-erradiazioaren esposizio muga-balioak daude finkatuta.

II. ATALA

ENPRESABURUEN BETEBEHARRAK

4. artikulua

Esposizioa zehaztu eta arriskuak ebaluatzea

1. 89/391/EEE Zuzentaraiko 6. artikuluan, 3. paragrafoan, eta 9. artikuluan, 1. paragrafoan finkatutako betebeharrak jarraiki, baldin eta langileak erradiazio optikoko iturri artifizialekiko esposizioan badaude, enpresaburuak ebaluatu egin beharko du langileen erradiazio optikoarekiko esposizioa zer mailakoa den, eta beharrezkoa izanez gero, neurtu eta/edo kalkulatu ere bai, esposizioa muga onargarrietaraino murrizteko neurriak finkatu eta gauzatzeko aldera. Maila ebaluatu, neurtu eta/edo kalkulatzeko metodologiak egokitu egin beharko dira Nazioarteko Batzorde Elektroteknikoaren (IEC) laser-erradiazioari buruzko arauetara, bai eta Nazioarteko Iluminazio Batzordeak (CIE) eta Europako Normalizazio Batzordeak (ENB) erradiazio ez-koherenteari buruz eginiko gomendioetara ere. Arau eta gomendio horiek aplikatu ezin diren esposizio-egoeretan, EBaren arau eta gomendio egokiak izan arte, estatuan nahiz nazioartean finkatutako irizpide zientifikoaren arabera egingo dira ebaluazioak, neurketak eta/edo kalkuluak. Bi esposizio-egoeretan, ebaluazioan kontuan hartu ahal izango dira ekipamendu-fabrikatzaileak emandako datuak, betiere dagozkien Erkidegoko zuzentaraen araberrakoak badira.

2. Lehenengo paragrafoan aipatutako ebaluazioa, neurketa eta/edo kalkulua eskumendun zerbitzuek edo pertsonak egingo dute periodikotasun egokiaz, eta kontuan hartuko dituzte, batez ere, 89/391/EEE Zuzendarauko 7. eta 11. artikuluetako xedapenak, jendearen eta zerbitzuaren premia eskumenei eta langileen kontsultari eta parte-hartzeari buruzkoak. Ebaluazioetatik lortutako datuak (1. paragrafoan aipatutako esposizio-mailaren neurketa eta/edo kalkuluetatik lortutakoak barne) gerora kontsultatzeko moduan gordeko dira.

3. 89/391/EEE Zuzendarauko 6. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, enpresaburuak alderdi hauetan jarriko du arreta gehien arriskuak ebaluatzerakoan:

- a) Erradiazio optikoko iturri artifizialekiko esposizioaren maila, iraupena eta uhin-luzeren tartea.
- b) Zuzendarau honetako 3. artikuluan aipatutako esposizio muga-balioak.
- c) Arrisku-talde bereziki sentikorretako langileen osasun eta segurtasunean izan ditzakeen efektuak.
- d) Lantokian erradiazio optikoaren eta substantzia kimiko fotosensibilizatzaileen artean egondako elkarrekintzek langileen osasun eta segurtasunean eragin ditzaketen efektuak.
- e) Izan ditzakeen zeharkako efektuak, hala nola, aldi baterako itsualdia, leherketa edo sutea.
- f) Erradiazio optiko artifizialekiko esposizio-maila murrizteko ordezkotako ekipamendurik badagoen.
- g) Osasuna zainduz gaiari buruz lortutako informazioa eta argitaratutako informazioa, ahal den neurrian behintzat.
- h) Erradiazio optiko artifizialekiko esposizio-iturri anizkoitzak.
- i) Laserraren sailkapena IECaren dagokion arauari jarraiki eta 3B edo 4 motako (edo antzeko sailkapena duten) laserrak eragindako lesioen antzekoak eragin ditzaketen iturri artifizialei dagokienez.
- j) Erradiazio optikoko iturrien eta lan-ekipamenduen fabrikatzaileek eman duten informazioa Erkidegoko zuzendarau aplikagarriak betez.

4. Enpresaburuak arriskuen ebaluazioa izan beharko du 89/391/EEE Zuzendarauko 9. artikuluan 1. paragrafoa a) letraren arabera, eta zer neurri hartu erabaki beharko du zuzendarau honetako 5. eta 6. artikuluen arabera. Arriskuen ebaluazioa euskarri egokian idatzi beharko da, estatuko ohiturei eta legediari jarraiki; enpresaburuaren ziurtagiria ere eduki ahal izango du, erradiazio optikoarekin lotutako arriskuen izaera eta norainokoa kontuan hartuta

ebaluazio zehatzagoa egin beharrik ez dagoela ziurtatzeko. Arriskuen ebaluazioa aldizka eguneratuko da, batez ere, aldaketa esanguratsuek zaharkituta utzi badute, eta jakina, osasuna zaintzearen emaitzek beharrezkoa dela nabarmentzen duten bakoitzean.

5. artikulua

Arriskuak ekidin edo murrizteko xedapenak

1. Aurrerakuntza teknikoak kontuan hartuta eta arriskua jatorrian kontrolatzeko neurriak eskuragarri dauden heinean, erradiazio optiko artifizialekiko esposizioak sortzen dituen arriskuak ezabatu egin beharko dira edo gutxienekora murriztu.

Erradiazio optiko artifizialekiko esposizioak eragindako arriskuak murrizteko, 89/391/EEE Zuzendarauan araututako prebentzio-irizpide orokorrak hartu beharko dira oinarritzat.

2. Erradiazio optikoko iturri artifizialekiko esposizioan dauden langileek dituzten arriskuak ebaluatu egingo dira 4. artikuluko 1. paragrafoa betez, eta esposizio muga-balioak gainditzeko edozein aukera detektatuz gero, enpresaburuak ekintza-plana egin eta aplikatuko du; plan horretan, esposizio muga-balioak ez gainditzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak egongo dira, eta batez ere, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Erradiazio optikotik eratorritako arriskua murrizten duten beste lan-metodo batzuk.
- b) Erradiazio optiko txikiagoa sortzen duten ekipamenduak aukeratzea, zer lanetarako erabiltzen diren kontuan hartuta.
- c) Erradiazio optikoaren igorpena murrizteko neurri teknikoak hartzea, eta beharrezkoa izanez gero, itxitura-sistemetara, blindajera eta osasuna babesteko antzeko mekanismoetara jotzea.
- d) Lan-ekipamenduaren, lanerako tokien eta lanpostuen mantentze-lanetarako programa egokiak egitea.
- e) Lanpostuak eta lantokiak sortu eta finkatzea.
- f) Esposizio-denbora eta -maila mugatzea.
- g) Babes pertsonalerako ekipamendu egokia eskura jartzea.
- h) Ekipamenduaren fabrikatzailearen jarraibideak kontuan hartzea, dagokion Erkidegoko berariazko zuzendarau baten menpe badago.

3. Laugarren artikuluan aipatutako arriskuen ebaluazioa dela-eta, esposizio muga-balioak gainditzen dituzten iturri artifizialekiko erradiazio optikoekiko esposizioan dauden langileen lanerako tokiak ondo seinaleztatu beharko dira Kontseiluaren 1992ko ekainaren 24ko 92/58/EEE Zuzendarauan

xedatutakoari jarraiki; zuzentzarau horrek lanean osasuna eta segurtasuna seinaleztatzeari buruzko gutxieneko xedapenak jasotzen ditu (89/391/EEE Zuzentzarauko 16. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera bederatzigarren berariazko zuzentzaraua)¹. Era berean, ikuspegi teknikoan arabera ahal denean eta esposizioko muga-balioak gainditzeko arriskua dagoenean, leku horiek identifikatuko egingo dira eta sartzeko mugak jarri.

4. Langileen esposizioak ezin izango ditu esposizioko muga-balioak gainditu. Dena den, enpresaburuak erradiazio optikoaren iturri artifizialei buruz zuzentzarau honetan xedatutakoa betetzeko neurriak hartuta ere, esposizioko muga-balioak gainditzen balira, enpresaburuak esposizioa muga-balio horien azpitik jartzeko lanari ekingo dio berehala, muga-balio horiek gainditzea zerk eragin duen zehaztuko du eta hori kontuan hartuta, babes- eta prebentzio-neurriak hartuko ditu berriro gaindi ez daitezela.

5. 89/391/EEE Zuzentzarauko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulua honetan aipatutako neurriak arrisku-talde bereziki sentikorretako langileen premietara egokituko ditu enpresaburuak .

6. artikulua

Langileentzako informazioa eta prestakuntza

89/391/EEE Zuzentzarauko 10. eta 12. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, enpresaburuak lantokian erradiazio optiko artifizialei eratorritako arriskuekiko esposizioan dauden langileei edo beren ordezkari informazioa eta prestakuntza nahikoa emango die zuzentzarau honetako 4. artikuluan aurreikusitako arriskuen ebaluazioari emaitzei buruz, eta, batez ere, honako hauei buruz:

- a) Zuzentzarau hau aplikatzeko hartutako neurriak.
- b) Esposizioko muga-balioak eta horiekin lotutako arrisku potentzialak.
- c) Zuzentzarau honetako 4. artikulua betez, erradiazio optiko artifizialekiko esposizio-mailak ebaluatu, neurtu eta/edo kalkulatzeko ateratako emaitzak, bai eta horien esanahiari eta arrisku potentzialei buruzko azalpenak ere.
- d) Esposizioak osasunean eragindako efektu kaltegarriak detektatzeko modua eta horien berri emateko era.
- e) Langileek zein egoeratan duten osasun-zaintza izateko eskubidea.
- f) Esposiziotik eratorritako arriskuak gutxienez murrizteko lan-ohitura seguruak.
- g) Babes pertsonalerako ekipamendu egokien erabilera zuzena.

7. artikulua

Langileen kontsulta eta parte-hartzea

Langileek eta/edo ordezkariak zuzentzarau honetan jorratutako gaiak kontsultatu nahi badituzte edo parte hartu nahi badute, 89/391/EEE Zuzentzarauko 11. artikuluari jarraiki egingo dute.

III. ATALA

ASKOTARIKO XEDAPENAK

8. artikulua

Osasun-zaintza

1. Osasunerako efektu kaltegarri oro saihesteko eta goiz detektatzeko eta erradiazio optikoaren esposiziotik eratorritako osasun-arriskuak (epe luzekoak nahiz gaixotasun kronikoak) saihesteko, estatu kideek xedapen batzuk onartuko dituzte langileen osasuna zaintzen dela bermatze aldera, eta betiere 89/391/EEE Zuzentzarauko 14. artikuluari jarraiki.

2. Estatu kideek ziurtatuko dute osasun-zaintza mediku, lan-medikuntzako aditu edo osasun-zaintzan eskumena duen osasun-agintaritzaren baten esku dagoela, estatuko legedia eta ohiturak betez.

3. Estatu kideek hartu beharreko neurri guztiak hartuko dituzte 1. paragrafoan aipatutako osasun-zaintza egiten zaien langileei banakako historia medikoa ezarri eta eguneratzeko. Historia medikoen egindako osasun-zaintzaren emaitzen laburpenak jasoko dituzte. Modu egokian gordeko dira, gerora kontsultatzeko moduan eta datuen konfidentzialtasuna errespetatuz. Agintaritzaren eskumendunak eskatuz gero, dagozkion historien kopia emango zaizkio, datuen konfidentzialtasuna errespetatuz. Estatu kideek egokitzat jotzen dutenaren arabera, enpresaburuak hartu beharreko neurri guztiak hartuko ditu medikuak, lan-medikuntzako adituak edo osasun-zaintzan eskumena duen osasun-agintaritzak 4. artikuluan aipatutako ebaluazioaren emaitzak izango dituela bermatzeko, baldin eta emaitza horiek osasun-zaintzarako erabilgarriak izan badaitezke. Langile guztiak ikusi ahal izango dute beren historia mediko pertsonala, aldezturik eskatzen badute.

4. Dena den, muga-balioak gainditzen dituen esposizio bat detektatzean, eraginpeko langileak edo langileek azterketa medikoa egiteko aukera izango dute, estatuko legediaren eta ohituren arabera. Azterketa hori egingo da, halaber, langile bati gaixotasun edo osasunerako efektu kaltegarri identifikagarri bat ikusten zaionean osasun-zaintzan, baldin eta medikuaren edo laneko medikuntzako adituaren iritziz, lanean izandako erradiazio optiko artifizialekiko esposizioak eragindako bada. Bietan ere, muga-balioak gainditzen badira edo osasunerako

¹ 1992-08-26ko L 245 EO, 23. or.

efektu kaltegarriak identifikatzen badira (gaixotasunak barne), hau egin beharko da:

- a) medikuak edo pertsona kualifikatuak langileari berari eragiten dieten emaitzen berri emango dio. Batez ere, esposizioaren ondoren hartu beharko lituzkeen osasun-zaintzako neurriei buruzko informazioa eta aholkuak emango dizkio.
- b) osasun-zaintzako emaitza esanguratsu ororen berri emango zaio enpresaburuari, datu medikoen konfidentzialtasuna errespetatuz.
- c) enpresaburuak honela jokatu du:
 - 4. artikulua betez eginiko arrisku-ebaluazioa berrikusiko du.
 - 5. artikulua betez arriskuak ezabatzeko edo murrizteko finkatutako neurriak berrikusiko ditu.
 - Kontuan hartuko ditu lan-medikuntzako adituen, beste pertsona kualifikatu batzuen edo eskumendun agintaritzaren gomendioak arriskua ezabatu edo murrizteko neurriak aplikatzerakoan (5. artikulua betez).
 - Antzeko esposizioan egon diren gainerako langileen osasun-zaintza etengabea eta osasun-egoeraren azterketa gauzatzeko behar den guztia jarriko du. Halakoetan, eskumena duen medikuak, laneko medikuntzako adituak edota agintaritzak proposa dezake esposizioan egon den jendeari azterketa medikoa egitea.

9. artikulua

Zehapenak

Estatu kideek zehapen egokiak finkatuko dituzte, eta zehapen horiek aplikatuko dira zuzentarau honen arabera onartutako estatuko legedia hausten denean. Zehapenak eraginkorrak, proportzionatuak eta disuasiozkoak izan behar dute.

10. artikulua

Aldaketa teknikoak

1. Kontseiluak eta Europako Parlamentuak eranskinetan finkatutako esposizioeko muga-balioen aldaketak onartuko dituzte, Tratatuko 137. artikuluko 2. paragrafoko prozedurari jarraiki.
2. Eranskin tekniko-teknikoak aldatu ahal izango dira, baldin eta:
 - a) harmonizazio teknikoaren eta normalizazioaren gaineko zuzentzarauak onartu badira lanerako ekipamenduak eta/edo tokiak asmatu, eraiki, fabrikatu edo egiteari buruz.

- b) aurrerapen teknikoak egon badira, Europako eta nazioarteko arau edo xehetasun harmonizatu garrantzitsuenak garatu egin badira eta laneko erradiazio optikoaren esposizioari buruzko ezagutza zientifiko berriak agertu badira.

Aldaketa horiek 11. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozeduraren arabera onartuko dira.

11. artikulua

Komitea

1. Batzordeak 89/391/EEE Zuzentarauko 17. artikuluan aipatzen den komitearen laguntza izango du.
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz.
 - 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa dela finkatu da.
3. Komiteak bere barne-araudia onartuko du.

IV. ATALA

AZKEN XEDAPENAK

12. artikulua

Txostenak

Bost urtean behin, estatu kideek zuzentzarau honen gauzatzeari buruzko txostena aurkeztuko diote Batzordeari, eta solaskide sozialen ikuspuntuak ere adieraziko dizkiote.

Bost urtean behin, Batzordeak txosten horien edukiaren berri, arlo horretan eginiko hobekuntzen berri eta ezagutza zientifiko berriak kontuan hartuz justifikatuta dagoen edozein ekintzaren berri emango die Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Aholku Komiteari.

13. artikulua

Gida praktikoa

Zuzentarau hau errazago aplikatzeko, Batzordeak gida praktikoa egingo du 4. eta 5. artikuluetako eta I. eta II. eranskinetako xedapenei buruz.

14. artikulua

Estatuko zuzenbidean sartzea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Estatu kideek indarrean jarriko dituzte zuzentarau honetan finkatutakoa betetzeko egin beharreko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak, 2010eko maiatzaren 27rako, gehienez ere. Batzordeari jakinaraziko diote berehala.

Estatu kideek onartzen dituzten xedapen horiek erreferentzia egingo diote zuzentarau honi edo erreferentzia hori izango dute argitalpen ofizialean. Estatu kideek finkatuko dituzte erreferentzia horren modalitateak.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote barne-zuzenbideko xedapenen testua; xedapen horiek lehendik onartutakoak edo zuzentarau honek araututako esparruan onartzen dituztenak izango dira.

15. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

16. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon egin da 2006ko apirilaren 5ean.

*Europako Parlamentuaren
izenean
Lehendakaria*

J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren
izenean
Lehendakaria*
H. WINKLER

I. ERANSKINA

Erradiazio optiko ez-koherenteak

Erradiazio optikoekiko esposizio-balioak ikuspuntu biofisikotik egokiak diren ala ez egiaztatzeko jarraian datozen formulatarako jo daiteke. Iturriak igortzen duen erradiazio-tartearen arabera, formula bat edo bestea erabiliko dugu, eta emaitzak dagozkien esposizio-muga-balioekin erkatu behar dira (1.1. taulan daude adierazita). Erradiazio optikoaren iturri jakin batek hainbat esposizio-balio izan ditzake, eta beraz, hainbat esposizio-muga.

a) eta o) bitarteko letrak 1.1. taulako ilarei dagozkie.

$$a) \quad H_{\text{eff}} = \int_0^t \int_{\lambda=180 \text{ nm}}^{\lambda=400 \text{ nm}} E_{\lambda}(\lambda, t) \cdot S(\lambda) \cdot d\lambda \cdot dt$$

(H_{eff} 180 eta 400 nm arteko uhin-luzeran bakarrik da egokia)

$$b) \quad H_{\text{UVA}} = \int_0^t \int_{\lambda=315 \text{ nm}}^{\lambda=400 \text{ nm}} E_{\lambda}(\lambda, t) \cdot d\lambda \cdot dt$$

(H_{UVA} 315 eta 400 nm arteko uhin-luzeran bakarrik da egokia)

$$c, d) \quad L_B = \int_{\lambda=300 \text{ nm}}^{\lambda=700 \text{ nm}} L_{\lambda}(\lambda) \cdot B(\lambda) \cdot d\lambda$$

(L_B 300 eta 700 nm bitarteko uhin-luzeran bakarrik da egokia)

$$e, f) \quad E_B = \int_{\lambda=300 \text{ nm}}^{\lambda=700 \text{ nm}} E_{\lambda}(\lambda) \cdot B(\lambda) \cdot d\lambda$$

(E_B 300 eta 700 nm bitarteko uhin-luzeran bakarrik da egokia)

$$g \text{ a l) } \quad L_R = \int_{\lambda_1}^{\lambda_2} L_{\lambda}(\lambda) \cdot R(\lambda) \cdot d\lambda$$

(ikus 1.1. taula, λ_1 eta λ_2 balio egokiak jakiteko)

$$m, n) \quad E_{\text{IR}} = \int_{\lambda=780 \text{ nm}}^{\lambda=3000 \text{ nm}} E_{\lambda}(\lambda) \cdot d\lambda$$

(E_{IR} 780 eta 3000 nm bitarteko uhin-luzeran bakarrik da egokia)

$$o) \quad H_{\text{piel}} = \int_0^t \int_{\lambda=380 \text{ nm}}^{\lambda=3000 \text{ nm}} E_{\lambda}(\lambda, t) \cdot d\lambda \cdot dt$$

(H_{piel} 380 eta 3000 nm bitarteko uhin-luzeran bakarrik da egokia)

Zuzentarau honetarako, lehen aipatutako formulen ordeztu, taula hauetan finkatutako adierazpenak eta balio diskretuak erabil daitezke:

$$a) \quad E_{\text{eff}} = \sum_{\lambda=180 \text{ nm}}^{\lambda=400 \text{ nm}} E_{\lambda} \cdot S(\lambda) \cdot \Delta\lambda$$

eta $H_{\text{eff}} = E_{\text{eff}} \cdot \Delta t$

$$b) \quad E_{\text{UVA}} = \sum_{\lambda=315 \text{ nm}}^{\lambda=400 \text{ nm}} E_{\lambda} \cdot \Delta\lambda$$

eta $H_{\text{UVA}} = E_{\text{UVA}} \cdot \Delta t$

$$c) d) \quad L_B = \sum_{\lambda=300 \text{ nm}}^{\lambda=700 \text{ nm}} L_{\lambda} \cdot B(\lambda) \cdot \Delta\lambda$$

